

Martxoaren 1
GARIZUMAKO 1. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako lehen igandea dugu gaur, Pazko festaburuari begira, Kristoren nekaldia, heriotza eta piztuera ospatzeko prestatuz.

Bataioa hartu izanak zer esanahi duen konturatzeko aldia ere badugu hau: pazko gaubeila santuan berrituko baitugu, Kristoren argitan, gure bataioko hitza.

Basamortura eraman eta bihotzera mintzo zaigu Jainkoa. Garizuma dugu basamortu hori, Jainkoaren Hitza entzun eta berarekin topo egiteko. Egin dezagun Garizumaren esperientzia jatorra!

Damu-otoitza

Senideok: Jainkoak ez du bekatariaren heriotza nahi, baizik bihotz-berri dadila eta bizi. Ospakizun honen hasieran, jar dezagun geure uste osoa Jainko Aitagan eta dei egin diezaiogun:

—Jesus Jauna, uraren eta Espirituaren bidez / jaiotza berria eman diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure barruan bihotz berria sortzeko, / Espiritu Santua bidali diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, betiereko salbamena ekarri diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
egizu, Garizumako urteroko jarduerak eraman gaitzala
Kristoren misterioa hobeki ezagutzera
eta berari dagokion eran bizitzera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak bere Herriarekin duen hartu-emana, elkarrizketa jatorra da: salbamen-historia berritzailea. Esperientzia horixe da berritu nahi duguna eta bizi nahi duguna. Jainkoaren Hitza dugu horretarako lagunik bikainena, otoitzarekin batera.

Lehenengo irakurgaia (*Has [Gn] 2, 7-9: 1-7*)

Genesis liburutik

Jaungoiko Jaunak gizona egin zuen lurreko hautsez, eta bizi arnasa hats egin zion aurpegira; eta gizona bizidun gertatu zen.

Gero, Jaungoiko Jaunak baratz bat landatu zuen Eden, sortalderuntz; eta han ipini zuen, Berak egindako gizona. Eta Jaungoiko Jaunak, mota guztietako zuhaitzak sortarazi zituen lurretik, begientzat eder eta ahoarentzat gozo; eta baratzaren erdian, biziaren zuhaitza jarri zuen, eta onaren eta txarraren jakinduri zuhaitza.

Sugea zen, Jaungoiko Jaunak egindako piztietan maltzurrena; eta honela esan zion emakumeari: «Baratzeko zuhaitzetatik ez jateko esan omen dizue Jaungoikoak».

Eta emakumeak sugeari: «Baratzeko zuhaitzen fruituetatik jaten dugu; baina baratz erdian dagoen zuhaitzaren fruituaz, honela esan

digu Jaungoikoak: «Horretatik ez jan, ez ukitu hori, hil ez zaitetzen».

Eta sugeak emakumeari: «Ez zarete hilko, ez! Badaki, bai, Jaungoikoak, zuek horretatik jan orduko, zuen begiak irekiko direla, eta Jaungoikoa adina izango zaretela, onaren eta txarraren jakitun».

Orduan emakumeak, zuhaitza jateko gozo eta begientzat eder eta ezaguera iristeko on zela ikusirik, haren aleetatik hartu eta jan egin zuen; eta senarrari ere eman, eta hark ere jan egin zuen. Ireki zitzaizkien begiak, eta ohartu ziren larru gorri zeudela; eta piku ostu batzuk josirik, soineko jantzi zituzten.

Erantzun-salmoa (Sal 50, 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 eta 17)

E - rru - ki, Jau - na, be - ka - tu e - gin du - gu ta.

Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun handiaz,
suntsi ezazu nire makurra zeure amaigabeko errukiaz.

Garbi nazazu zeharo neure hobenetik,
ikuz nazazu neure gaiztakeriatik. R/.

Neure bihurrikeria ezagutzen baitut,
neure hobena beti begien aurrean baitut.
Zuri egin dizut bekatu, Zuri bakarrik,
zure begietan oker dena egin dut nik. R/.

Bihotz garbi bat, Jainko, sor ezazu niregan,
arnasa bizkorra berri ezazu nire barnean.

Ez nazazu urrun zeure aurretik,
zure arnasa santua ez kendu niri. R/.

Zeure salbamenaren poza bihur **ie**zadazu,
zeure arnasa zabalez **sendo** nazazu.
Irekiko dizkidazu ez**pain**ok, Jauna,
eta nire ahoak iragarriko du zure **go**respenna. R/.

Bigarren irakurgaia (*Erm 5, 12-19*)

Laburragoa egin nahi bada, [] kako artean ematen diren zatiak utz daitezke.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Gizon batengatik bekatua mundura sartu zen bezala, eta bekatuarengatik heriotza; eta horrela, heriotza gizaki guztietara zabaldu zen, guztiek egin zutelako bekatu... [Legea baino lehen, munduan bekatua izanik ere, ez zitzaion inori bekatuik ezartzen Legerik ez zegoelako. Baina, hala ere, Adamengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotza, Adamen hutsegitearen antzeko bekatuik egin ez zutenen gain ere; eta Adam, etortzekoa zenaren irudi da.

Graziarekin ez da bekatuarekin bezala gertatu. Izan ere, baten bekatuaz guztiak hil badira, askoz ugariago zabaldu da guztientzat Jaungoikoaren grazia eta dohaina, gizon bakarrari esker: Jesukristori esker, alegia. Jainkoak ematen duen graziarekin ere ez da gizon bakarraren bekatuaren ondorioekin bezala gertatu: bati emandako epaiak hondamendi osoa ekarri zuen; graziak, berriz, barkamena, hainbeste bekatuaren aurrean.]

Gizon bakarraren bekatuarengatik nagusitu zen heriotza. Zenbatez gehiago biziko dira orain eta nagusituko, Jesukristo bakarrarengatik, grazia, dohaina eta zuzentasuna oparo hartzen dituztenak!

Beraz, baten bekatuak gizaki guztiei hondamena ekarri zien bezala, berdin baten zuzentasunak ekarriko die gizaki guztiei bizirako zuzentasuna. Eta baten menpetasun ezagatik guztiak bekatari

gertatu ziren bezala, berdin baten menpetasunagatik iritsiko dute guztiak zuzentasuna.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Mt 4, 4b)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi,
Jainkoaren ahotik ateratzen den
hitz guzti**rik** baizik. R/.

Ebanjelioa (Mt 4, 1-11)

Homiliarako argibideak

Jainkoa bakarrik zerbitzatuko duzu

Jainkoaren Hitza dohaina da eta hurkoa bera dohain bat den bezala. Ez dago Hitza entzuterik hurkoari entzun gabe. Bihotz-berritzeko egiten zaigun deiarri Jesusen jarrera berarekin erantzutera gonbidatzen gaitu, Pazkorako bide eder honetan.

Garizumako lehen igande honetan Jainkoaren lehenengo egitasmoa desbideratu zuen bekatua ikusten dugu kreaioari begiratzen diogun unean (*Has 2, 7-9; 3, 1-7*). Kristorekin gizakia salbatua izan da eta izaki berri egina, baina **tentaldia** begien aurrean izango du beti eta Jesusek egin zuen eran garaitu behar du (*Erm 5, 12-19*).

Jesusek, bere misio aldia hasi zuenean aukera egin behar izan zuen: Erreinuaren balioen aldeko aukera egin oso-osorik edota guztiok tentatzen gaituzten bekatuaren mundu zaharreko balioak hautatu

(Mt 4, 1-11). Mundutarkeriak ezin du izan gure bizitzaren zentzua. Jainkoari bizkar emanik gizartea eratzeko tentaldia dugu, dena izango dugula hitz ematen digun mundua bera jainkotzat gurtzeraino. Jesusi arrakasta betearen bidea eskaini zitzaion, ez deabruak bakarrik baita bere garaikideek eta ikasleek berak ere, baina berak baztertu egin zuen. Jendea ez da liluraren bidez salbatzen, Jainkoaren borondateari bihotza ireki diezaion lan eginez baizik. Eta horixe egin zuen beti Jesusek.

Sufritzen duen Mesias izatea zuen bide eta horrek Jainkoarekiko leialtasunez eta salbamena behar zuten senideekiko maitasunez gurutzera eraman zuen. Ogia aski ez duen gizakiaren behar sakonak ezagutuz eta errazkeriaren bidetari ihes eginez posible da Jainkoarekiko eta bere Erreinuarekiko leial irautea.

Jesusek egin zuen bereizmen bide horretan, **Jainkoaren Hitza** izan zuen **iparrorratz**. Liburu Santua da bereizmena egiteko bidea: mesiaskeri faltsuak salatzen ditu, salbamen errazaren gezurrezko bideak arbuizaten ditu eta Jainkoak bere herria salbatzeko duen bidea erakusten eta eskaintzen digu.

Garizuman zehar aukera dugu gugan dagoen Jainkoaren irudia berregiteko, bekatuak desitxuratu duenez. Kristori begiratu behar diogu horretarako, bera baita Aitaren irudi egiazkoa. Kristok gaitza garaitu izana promesa bat da eta bermea ere bai gu **geu ere garaile** izan gaitzkeela adierazten diguna. Guk ere garaituko dugu egun batean bekatua. Ez gaude bakarrik gaitzaren kontrako borrokan. Kristo ondoan dugu, bera da Garaile handia. Fedeak lagunduko digu garaile izaten.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senide maiteok egiogun otoitz zeruko Aitari, gizaki guztientzat errukia eta bekatariontzat barkamena eskatuz:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

—Garizumaldi honetan, Jainkoak bere fededunei gaitzaren aurka egiteko, bere okerretatik zuzentzeko eta onbidera itzultzeko behar duten indarra eman diezaien. Egigun otoitz. R/.

—Ondasunez oparo bizi direnek, daukatena behartsuen onerako erabiltzen jakin dezaten, eta mundu honetako ondasunetan liluratuta bizi ez daitezen. Egigun otoitz. R/.

—Gure eskandalu eta epeltasunengatik Elizatik urrundu direnak Jainkoaren familiara itzul daitezen eta Jainkoak geure jarrera horien bekatua barka diezagun. Egigun otoitz. R/.

—Garizumako penitentziaren bidez gure bihotzak, berriz ere, Jainkoaren hitzak fruitu oparoa emango duen lur emankorra izan daitezen. Egigun otoitz. R/.

Ezagutzen duzu, Jauna, gure giza ahultasuna; entzun zure herriaren otoitzak eta emaiozu Zure hitzaren indarrez Garizumako bideari ekitea, tentaldiak garaiturik pozik iritsi dadin Pazko jaietara. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Garizumako I. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 158. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Hartu dugun ogi santu honek, Jauna,
sinesmena bizkortzen digu,**

**itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;
 egizu, ikas dezagula
 egiazko ogi bizia den Jesusen gose izaten
 eta zure ahotik ateratzen diren hitzetan bizia aurkitzen.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Etor bedi, Jauna, ugari zure bedeinkapena
 zure herriaren gainera;
 emaiozu estualdietan itxaropen handiagoa,
 tentaldian indar sendoagoa eta betiko salbamena.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.** R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.** R/. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Meza-liburuan 643. or.).